

AGERIKO BATZARRA

Donibane Lohizunen, 2000.eko uztailaren 21ean

Donibane Lohizunen, Maurice Ravel auditoriumean, 2000.eko uztailaren 21ean, arratsaldeko bostak eta erdietan, eman zaitzazue hasiera Gratien Albert Goihenetxeren heriotzaren mendeurrena ospatzeko Euskaltzaindiak eraturako ageriko batzarrari. Goizeko euskaltzain jaun-andre berak bildu dira ekitaldira, salbu H. Knörr eta E. Larre. Euskaltzain horiez gainera, P. Andizabal, X. Arbelbide, S. Basauri, R. Camblong, J. B. Dirassar, M. Goienetxe, D. Landart, J. L. Lizundia, M. Zalbide eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazleak eta P. Telleria eragile teknikaria ere entzuleen artean izan dira.

Mahaiburu Jean Haritschelhar izan da, ondoan P. Goenaga idazkaria, J. A. Arana Martija diruzaina eta bi hizlariak, hots: Mikel Zalbide eta Manex Goienetxe jaunak. Mahaiburuak herriko auzapez ordearen ezin etorriaren berri eman du hasieran.

Lehenbiziko agurra euskaltzainburuak egin du. Eskerrak eman dizkio udalari ekitaldia ospatzeko eman dituen erraztasunengatik eta gero omenduaren nortasunaren zenbait zertzelada eskaini ditu. Garai hartan Donibane Lohizune leku nabarmena izan zen euskaltasunarentzat. Euskaltzaindiak omenaldia egin nahi izan dio herriko auzapez eta euskaltzale handi izan zenari.

Ondoren, Manex Goienetxe historialariak hartu du hitza omenduaren figura bere garaian eta giroan kokatzeko. Hitzaldiaren izenburua: “Zuri-gorriak Lapurdin eta, bereziki, Donibane Lohizunen, orduko euskaltzaleen artean”. Zurien eta gorrien arteko gatazka horrek euskal produkzioaren gehitze handia ekarri zuen, hizlariaren aburuz, norgehiagoka aritzen baitziren maiz.

Bigarren hizlaria Mikel Zalbide izan da: “Albert Goienetxe, XIX. mendeko euskalgintzaren eredu”. Hizlariaren hitzetan, Goienetxek hitz egitea Euskal Herriaren eta euskal kulturaren alde ilunez hitz egitea da. Goienetxeren belaunaldia aztertu du eta gainerakoekin alderatu. Garai hark izan zituen alde txarrak azpimarratu ditu hizlariak: frantsesa euskararen betiko esparruak inbaditzen hasi zen. Eskolak familiari lekua kentzen dio. Euskara eskolan sartzen da baina erdarara hobeki iristeko bide gisa. Ikuspegi aski kritikoa eskaini du hizlariak.

Belaunaldi horren alde onak ere aztertu ditu Zalbidek: euskal kultura modernizatzen hasi ziren, nahiz eta modu itxi samarrean. Batasun zabal baten alde lan egin zuten. Nolanahi ere, euskaltzale handi bat izan zen eta hark antolatutako jaiek eta batzarrek, izan zituzten mugak gorabehera, besteak zirikatze ere balio izan zuten.

Azkenik, Haritschelhar jaunak eskerrak eman dizkie bilduei eta seiak eta erdie-tan amaitutzat eman da bilkura.

Euskaltzainburuak

Jean Haritschelhar

Idazkariak

Patxi Goenaga

* * *